

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzua antolatzen eta egin beharreko jarduerak adosten ari ginela, bakoitzak abilezia desberdinak ditugula ikusi dugu; beraz, bakoitzak beharrezkoa dugun jarduera bat burutzeko gai gara. Hori kontuan hartuta, jarduera jakin hauek ez ditugu kanpoko norbaiten esku uitziko, eta bezeroen zerbitzuari dagokionez, errazagoa eta ekonomikoagoa izango da gure enpresarako.

Taldean 5 gara, eta funtsezko baliabidetan aipatu dugun bezala, norberak bere abileziak eta trebetasunak ditu. Bakoitzaren gaitasunak aprobetxatuko ditugu enpresaren errendimendua ahalik eta handiena izateko. Izan ere, taldeko batek ezin badu lana egin edo gaixorik badago, beste guztiok elkarrekin lana eginez bere postua betetzen saiatuko gara. Gure enpresan oso garrantzitsua izango da elkarrekin lana egitea, baina, ezinbestekoa izango da beste enpresa batzuen laguntza ere jasotzea.



Gure proiektuan, aurretik esan bezala, oso garrantzitsua izango da webgune on eta erakargarri bat sortzea, horrela bezeroak erakarri eta Txartel gehiago salduko ditugu. Hortaz Ander Arenas arduratuko da. Webgune onek, nagusiki bezeroekin harremanetan jartzeko, produktuaren eskaerak egiteko eta produktuaren aktibazioa egiteko balioko du. Hori dena modu txukun eta erakargarri batean egiten badaki, horregatik, Ander izango da webgunearen egilea.

Taldean, ezinbestekoa da pertsona bat egotea jendearekin harremanetan jartzeko, kasu honetan, Ander Vega pertsona aproposa da. Pertsonekin irekia denez, tratuak egiterakoan inongo zailtasunik gabe egingo ditu. Gainera gure enpresan eta beste batzuen enpresatan egiten diren bilera guztietara, bera joango da, inongo arazorik gabe.

Eiderrek pertsonak konbentzitzeko gaitasuna du, horregatik bezero batek ez badaki produktua erosi ala ez, bera konbentzitzen saiatuko da eta produktuak dituen alderdi positiboak aipatuko ditu, helburu horretarako salmentarako abileziaz arduratuko da. Gure helburua baita bezeroek produktua erostea eta konbentzitzea ezinbestekoa da. Bestalde, gauzak azaltzen eta besteei laguntzen trebea denez, bezeroen batek kezka edo zalantzaren bat badu produktuarekin, bera arduratuko da azaltzeaz eta laguntzeaz.

Khadija koordinazioan eta antolakuntzan oso trebea da, beti dena antolatzen duelako eta oso ordenatua delako; horregatik, bera taldearen arduraduna izango da. Bera izango da taldean lanak banatuko duena eta denok zerbait egiten ari diren ikusiko duena, inor lanik gabe ez egoteko.

Salmak irudimen handia du; beraz, hori erabili dezake originaltasuna duten eta erakargarriak diren iragarkiak egiteko. Horiek ordenagailuan diseinatuko ditu, tableta grafiko baten laguntzaz eta kartel horiek sare sozialetan publizitateaz zein kaleetatik jartzeaz arduratuko da. Honi esker, bezeroak erakarriko ditugu gure produktua erosteko eta gure enpresa pixkanaka zabaltzen joateko.

Azkenik, erabiliko ditugun sare sozialak (instagram, twitter eta facebook) eguneratuta mantendu beharko ditugu, bezeroen iritziak ikusteko zein haien zalantzak argitzeko. Honetaz taldekide guztiok arduratuko gara. Ander Arenasek eta Ander Vegak argazkiak editatzeaz eta sareetara igotzeaz arduratuko dira, eta Salma, Eider eta Khadijak bezeroen zalantzak argitzeaz eta haien balorazioak kontuan hartzeaz arduratuko dira.

